

## **ARTISTAREN ESKUA...** **(POTRET EGILEA-tik egokitua)**

Jokolariak:

Artista  
Aita  
Haurra

Bide bazter batetan, artista bat, fantesia handirekin, margotzen ari da. Aita-seme batzu hurbitzen zaizkio.

**AITA:** Errazu, Jauna, barkamendurekin... Zu omen zara aipatu didaten artista famatu hura, in nomine santian, potretak egiten dituzuna...

**ARTISTA:** Bai, Jauna, bai. Dudarik gabe!... Zure erretrato bat nahi zenuke?...

**AITA:** Ez nerea, ez.

**ARTISTA:** Haur xarmant honena?

**AITA:** Ez eta ere...

**ARTISTA:** Norena beraz?

**AITA:** Ene emaztearena.

**ARTISTA:** Ederki! Noiz etorri behar dut zuen etxera, zure andrearen itxura hartzeko?

**AITA:** Ez duzu etxera etortzerik... (*nigarrez*) Gaixo Martxelina...

**ARTISTA:** Zer? Zure andrea osasun aldetik edo,... gaizki da?

**AITA:** Gaizki baino gehiago... Hila da, hila. (*Aita semeak nigarrez hipaka...*).

**ARTISTA:** Barkatu Jauna... Zuen bihotz-minean parte hartzen dut.

**AITA:** Milesker.

**ARTISTA:** Zure andre gaixoa, noiz hil da?

**AITA:** Duela hiru urte, Jauna... Ah! Jite bortitza zuen baina izigarri emazte prestua zen. Ez da hala, muñu?

**HAURRA:** Bai, aita.

**AITA:** Xuka itzak begi horiek muñu eta zintza hadi!

**ARTISTA:** Zure andre zenaren potreta ttipi bat badukezu, ez,... modelo gisa...

**AITA:** Fotografia balinbanu, ez nuke zure laguntzaren beharrik... Ez Jauna, ez dut haren fotografiarik!

**ARTISTA:** Nola nahi duzu beraz zerbait egin dezadan?

**AITA:** Nik behar ote dizut ofizioa erakutsi?...

**ARTISTA:** Haur honek ba ote du amaren itxurarik?

**AITA:** Sendimenduz eta adimenduz dena ama da; begitartez eta trakaz, dena ni. Ez da hala, muñu?...

**HAURRA:** Bai, aita!

**ARTISTA:** Haste ona dugu... Baina zuk, ez duzu ahantzia, zure lagun zena nolakoa zen...

**AITA:** Ahantzia?! Ba duzu burutik, ala? Gaixo Martxelina... Bizi guzian hartaz oroituko naiz...

**ARTISTA:** Nolakoa zen? Mintza zaitetz...

**AITA:** Ah, karaktera samina zuen, Jauna... Baina emazte gixakoa zen! Hitz eta promes dizut, halako guti aurkituko duzula mundu hontan!

**ARTISTA:** Zenbat gora zukeen?

**AITA:** Zenbat gora? Nik deabru dakita? Ni baino pixka bat ttipiago zela uste dut... Nahiz zapata takoidunak ezartzen zituelarik emazte pozi ederra egiten zuen... Baina haren negurtzea, ez zait sekula gogoratu ere...

**ARTISTA:** Bon... Beraz haren potreta burutik eta paporaino eginen dut. Horrela, ez gara enganatuko... Handia zenetz ala ttipia, ez dugu batere jakitearen beharrik...

**AITA:** Arrazoin duzu. Bestalde, beherekaldea ez ezarri, hain segur, merkeago ere jalgiko

naiz...

**ARTISTA:** Erran gabe doa... Horiek hola, aurpegia, nolako zuen: biribila, ala...

**AITA:** Aurpegi ona, Jauna. Bai. Bere kolera bultak bazituen, besteek bezala, baina orokorki emazte biziki ona...

**ARTISTA:** Aurpegia, ilargi betea bezala zuena, erronda-erronda, ala arraultzearen parekoa, bi puntetan hertsia...

**HAURRA:** Erronda-erronda...

**AITA:** Hago ixilik, hi! Arraultzearen parekoa zuen... Bereziki konstipatua zelarik...

**HAURRA:** Gezurra! Gure ama ez zen sekulan konstipatua!

**ARTISTA:** Eta begiak?

**AITA:** Biziki erneak, Jauna.

**ARTISTA:** Ez naiz harritzen! Baina zer kolore: beltz, urdin, berde ala gaztaina koloreak?

**AITA:** Pareak ba, Jauna... Biga ba zituen. Hea muñu, hi oroit haizenetz, koloreaz?...

**HAURRA:** Oroitzen naiz ez zituela bi begiak berdin berdinak. Lunetak behar zituela...

**AITA:** Luneta beltzak ezar iezaizkozu... Horrela, inork ez du deus ikusiko!

**ARTISTA:** Egia... Lunetek gauza asko gordetzen dute... Orain, sudurra...

**AITA:** Sudur fina zuen, biziki fina! Denak segidan usnatzen zituen, ehiziko zakurrak bezala!

**ARTISTA:** Bai, baina jakin nahi nuke zer sudur mota zuen: mehea, xuxena, lodia, tapala, kakola, harroa...

**AITA:** Eman iezaiozu sudur plantako bat... Luneta beltzen erdi-erdian!

**ARTISTA:** Eta beharriak?

**AITA:** Bi beharri... Bai Jauna! Begiak bezala...

**ARTISTA:** Bai, baina nolakoak? Beharri muñunak, beharri zabalak, edo biak goiti so, xorrotx-xorrotxa, edo berdin biak beheiti so, dilingo bezala?...

**AITA:** Beharri... normalak zituen. Normalak. Eskuinetik edo ezkerretik entzuna, berehala mihi puntatik ateratzen zitzaion... Ez da hala, muñu? Beharri normalak zituela?...

**HAURRA:** Ez dizkiot sekula ikusi... Ile kuxkulatuek gordetzen zizkioten!...

**AITA:** Egia handia! Astean hiru aldiz apaintzen zituen bere ileak, eta... eni esker!

**ARTISTA:** Eta ahoa?...

**AITA:** Biziki pollita, hetsia zuelarik!

**ARTISTA:** Eta... hetsia ez zuelarik?

**AITA:** Mihi bat gaitza! Ez zuen ixiltzerik, behin hasiz geroz! Zer kalaka! Baina aitortu behar dut halere, emazte ezinago gixakoa zela, bere maneran...

**ARTISTA:** Jadanik errana didazu hori... Baina jakin nahi nuke, aho handia ala ttipia zuenetz, bildua ala kefa?

**AITA:** Otoi Jauna: emaiozu aho hori nerea bezala, sudur azpian! Ez zaitela hor bortxa, aurpegia abtsulutiki edertu beharrez... Zen bezala aski zait... Nahikoa...

**ARTISTA:** Eta kokotsa?

**AITA:** Ba... kokots fierra zuen eta kolaspe izpi bat ere, lepo paparda haste batekin... Ez da hala, muñu?

**HAURRA:** (*Mutur*) Ez da ene afera!

**AITA:** Beha iezaiozu haur kaka-mokordo murrukurtun honi! Non duk aitaren errespetua? (*Haurrak, erdi-gordeka mihia tiratzen dio...*).

**ARTISTA:** Eta eskuak?...

**AITA:** Eskuak... arras zaluak zituen... Zifli zafla hasten zelarik, harrigarria zen, ifernuko sugearen ziztuak zituen... eta larru bat, idorra! Baina laster pasatzen zitzaion eta orduan bildotxa irudi zuen... hain zen ezta eta goxoa...

**ARTISTA:** Ez didazu xehetasunik ematen, hea, erhi luzeak zituenetz ala laburrak?

**AITA:** Ah... ahanzten dut... Erastun lodi bat ba zuen erhi hontan... Ezkongai ginelarik erosi nion, Ezpeletako feirian! Oroit haiz, muñu, zer erastun ederra zen, dena urrea...

**HAURRA:** Ez, aita, ez naiz batere oroit...

**AITA:** Oroituko hintzen bai, hik ordaindu bahio...

**HAURRA:** Ttipiegia nintzen... (*erdi nigarrez*)

**AITA:** Bai, muñu, bai...

**ARTISTA:** Horiek hola, abian eginen dizut zure andre zenaren itxura. Zaude hor ixtaño bat, minutu baten lana da... (*Artista lanean seriozki hasten da. Haurra hurbiltzen zaio, ikusteko...*)

**AITA:** Martzel! Haugi hona... Utzak jaun hori lanean aritzera...

**HAURRA:** Ez diot trabarik egiten...

**AITA:** Haugi hona halere! Zoriontsu haiz, ez, orain ikusiko bait duk ama, zen bezala, artista handi horren esku trebea dela medio?...

**HAURRA:** Bai, aita.

**AITA:** Zer den haatik, esku-airea, zinezko talendua! Begira iezok nola ari den, ama begien aitzinean balu bezala... Biba zu, Jauna... Biba zu!

**ARTISTA:** Gorri poxi bat hemendik... Hortxetan, marra beltz bat... Urdin izpi bat, la... la... xuri firfira bat matelan... la... Jaun maitea, hona egina... Mila libera duzu...

**AITA:** Milesker! (*Dirua emaiten dio eta potreta hartzen*).

**ARTISTA:** Nik zuri... (*Aita-semeak potretari begiratzen diote eta nigarrez-xotinka hasten dira...*)

**AITA:** Gaixo Martxelina!...

**HAURRA:** Gaixo Ama...

**ARTISTA:** Ez nuen uste hain ongi kausituko nuela...

**AITA:** (*Bulta baten bururan*). Jauna, horra potreta. Atxik ezazu... Sobera pena egiten dit. Gaixo Martxelina... nola kanbiatu den hiru urte barne... (*Nigarrez ateratzen da semearekin*).